

NAFARROAKO KUTXA FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

ZIOEN AZALPENA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Izaera, izena eta eremua.
2. artikulua. Helbidea.
3. artikulua. Iraupena.
4. artikulua. Araubide juridikoa eta zerga-araubidea.
5. artikulua. Nortasun juridikoa eta gaitasuna.

II. KAPITULUA HELBURUAK, JARDUERAK ETA PERTSONA ETA ERAKUNDE ONURADUNAK

6. artikulua. Helburuak.
7. artikulua. Jarduerak.
8. artikulua. Pertsona eta erakunde onuradunak.

III. KAPITULUA PATRONATUA

1. atala. Arau orokorrak
9. artikulua. Izaera.
10. artikulua. Patronatuko kide karguaren izaera.
2. atala.- Patronatuaren osaera eta izendapena
11. artikulua. Patronatuaren osaera.
12. artikulua. Patronatuko kide izateko baldintza orokorrak.
13. artikulua. Debekuak eta bateraezintasunak Patronatuko kide izatearekin.
14. artikulua. Erakunde fundatzaileek izendatutako Patronatuko kideen izendapena eta egiaztapena.
15. artikulua. Nafarroako Parlamentuak izendatutako Patronatuko kideak hautatzea.
16. artikulua. Karguaren iraupena, berritzea eta lanpostu hutsak betetzea.
17. artikulua. Patronatuko kide bihurtzea: kargua betetzen hastea.
18. artikulua. Kargua uztea.
3. atala. Patronatuaren antolaketa
19. artikulua. Lehendakaritza.
20. artikulua. Lehendakariordetza.
21. artikulua. Idazkaritza.
22. artikulua. Genero-berdintasuna karguak izendatzean.
4. atala. Patronatuaren eginkizunak.
23. artikulua. Patronatuaren eginkizunak.
24. artikulua. Eskuordetza eta ahalordetzeak.

- 5. atala. Patronatuaren funtzionamendua
- 25. artikulua. Saioak.
- 26. artikulua. Deialdia eta non egingo den.
- 27. artikulua. Erabakiak eratzea eta hartzea.
- 28. artikulua. Hirugarren pertsonak Patronatuaren bileretara joatea.
- 29. artikulua. Akta-liburua.

IV. KAPITULUA.- FUNDAZIOAREN BESTE ORGANO BATZUK

- 1. atala. Organo delegatuak
- 30. artikulua. Gobernu Onerako Batzordea
- 31. artikulua. Batzorde Ekonomikoa
- 2. atala. Zuzendaritza, laguntza eta lankidetzaren organoak
- 32. artikulua. Zuzendaritza Nagusia
- 3. atala. Organo aholku-emaileak
- 33. artikulua. Aholku Batzordea

V. KAPITULUA.- ARAUBIDE EKONOMIKOA

- 1. atala. ondarea eta errentak
- 34. artikulua. Fundazioaren zuzkidura.
- 35. artikulua. Fundazioaren ondarea.
- 36. artikulua. Ondasunen eta eskubideen titulartasuna.
- 37. artikulua. Besterentzea eta kargatzea.
- 38. artikulua. Jaraunspenak eta dohaintzak.
- 39. artikulua. Errentak eta diru-sarrerak.
- 2. atala. kontabilitatea eta jarduera plana
- 40. artikulua. Jarduera ekonomikoa, kontabilitatea eta auditoria.
- 41. artikulua. Aurrekontua eta jarduera-plana.

VI. KAPITULUA - GOBERNU ONA: ETIKA, GARDENTASUNA ETA KONTUAK EMATEA

- 42. artikulua. Patronatuko kideen betebeharrak.
- 43. artikulua. Jarduteko printzipioak eta arauak.
- 44. artikulua. Interes-gatazka.
- 45. artikulua. Patronatuko kideen erantzukizuna.
- 46. artikulua. Aldi baterako debekua Fundazioan kargu ordainduak betetzeko.
- 47. artikulua. Publizitatea eta gardentasuna.
- 48. artikulua. Kontu-auditoretza eta beste kontrol batzuk.

49. artikulua. Gobernu Korporatiboaren Urteko Txostena.

CAPÍTULO VII.- BAT-EGITEA, AZKENTZEA ETA LIKIDAZIOA

50. artikulua. Xurgatzea eta fusioa.

51. artikulua. Azkentzea.

52. artikulua. Geratzen den hartzekoaren likidazioa eta esleipena.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Kutxa Fundazioak jarraipen historikoa ematen dio Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Navarra erakundeari. 2011n finantza negozioa bereizi ondoren, erakundea egokitzen joan da hurrenez hurreneko egitura aldaketetara, finantzen sektorean eta fundazioen arloan gertatutako araudi eta eragiketa aldaketa ugarien ondorioz. Horrela, 2013an aurrezki kutxen erregistro berezian baja eman ondoren, izaera bereziko fundazio bihurtu zen Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Navarra, eta, 2014an, izaera juridikoa aldatu eta banku fundazio bihurtu zen; orduan, Estatutuen azken erreforma egin zen, izaera berri horretara egokitzeko.

2021eko martxoan CaixaBank SAK eta Bankia SAK bat egin zuten (CaixaBank SAK Bankia SA xurgatuta), eta eragiketa hori Valentziako Merkataritza Erregistroan inskribatu zenean, banku fundazio izateari utzi zion Nafarroako Kutxa Banku Fundazioak; izan ere, zazpi urtez banku fundazio gisa jardun ondoren, jada ez zituen betetzen aurrezki kutxa eta banku fundazioei buruzko abenduaren 27ko 26/2013 Legeak banku fundazio izateko ezartzen zituen baldintzak.

Horrez gain, 2021eko uztailaren 17an indarrean sartu zen 13/2021 Foru Legea, ekainaren 30ekoa, Nafarroako Fundazioei buruzkoa, eta 2022ko otsailaren 2an 1/2022 Foru Legea, urtarrilaren 26koa, zenbait fundazioen zuzendaritza organoak arautzen dituen otsailaren 17ko 2/2014 Foru Legea aldatzen duena. Arau horren arabera, aurrezki kutxen gobernu organoen eta araubide juridikoaren beste alderdi batzuk arautzen dituen uztailaren 9ko 11/2010 Errege Lege Dekretuaren xedapenen babesean Nafarroan eratutako izaera bereziko fundazioek, baldin eta Foru Legea indarrean sartzean banku fundazioaren edo fundazio bereziaren izaera galdu bazuten, hiru hilabeteko epea zuten Estatutuak Legearen xedapenetara egokitzeko, hura indarrean sartu zenetik zenbatzen hasita.

Aurreko guztiaren ondorioz, eta azken lege erreforma horien ondoren, Fundazioaren Estatutuak aldatu eta egokitu behar ditugu orain, aplikagarri zaion araudian egindako aldaketak betetzeko eta Fundazioaren izaera juridiko berrira egokitzeko.

Nafarroako Kutxa Fundazioak foru antolamenduko erregimena izan du historikoki, Nafarroako Gobernuaren eta Estatuko Gobernuaren arteko hitzarmenaren edo

itunaren ondorioz. Itun horren bidez, Estatutuak onartu izan dira, bai eta horien aldaketak ere, horien artean 2013ko eta 2014ko berrienak.

2/2014 Foru Legearen 8. artikulua arabera, Patronatuaren ahalmenetako bat da Fundazioaren Estatutuak onartu, aldatu eta interpretatzea, Babesletzak nahitaezko txostena egin ondoren. Horrenbestez, eta aipatutako agindua betez, indarrrik gabe geratzen da Nafarroa-Estatua itunari jarraituz Estatutuak aldatzeko prozesua, eta Patronatuak erabateko autonomia hartzen du Fundazioaren funtzionamendua eta gobernua arautzen dituen oinarrizko araua eratzeko.

Erreforma honetan, aldaketa adierazgarrienak 2/2014 Foru Legea egokitzeko dira, eta, horien barruan, Patronatua erregulatzeko aldaketak dira nagusiak. Alde batetik, Patronatuaren osaera aldatuko da, eta, hain zuzen ere, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak izendatutako bost kide, Nafarroako Gobernuak aukeratutako hiru kide, eta Iruñeko Udalaren Osoko Bilkurak hautatutako kide bat izango ditu.

Beste aldaketa garrantzitsu bat Patronatuko kideen karguaren iraupenean gertatuko da, lau urtetik seira igaro baita; eta hiru urtean behin organoa partzialki berrituko da. Aldaketa horren helburua da, funtsean, lortutako esperientzia zaintzea eta Patronatua osatzen duten pertsona guztiak batera aldatuz gero gertatuko litzatekeen ezagutza galera saihestea.

Erreforma honen beste helburu bat da Fundazioaren gobernu korporatibo ona ahalbidetuko duten alderdiak txertatzea Estatutuak idazteko prozesuan.

Alde batetik, azpimarratzekoa da Fundazioaren helburuei buruzko 6. artikulua aldatu dela, Fundazioaren misioa zentratzeko eta mugatzeko helburuz, eta Patronatuari marko egoki bat emateko asmoz Erakundearen jarduketa planak definitzeko.

Bestalde, Fundazioaren beste organo batzuk arautu dira, Nafarroako Fundazioei buruzko Foru Legean aurreikusitako egiturari jarraituz. Organo eskuordetuei dagokienez, Gobernu Onaren Batzordea eta Batzorde Ekonomikoa sortzea aurreikusten da, eta Patronatuko hiru-bost kide izango dituzte. Zuzendaritza, laguntza eta lankidetzak organoei dagokienez, zuzendari nagusiaren figurari eutsiko zaio.

Azkenik, organo aholku emaile gisa, Patronatuaren Aholku Batzordea sortuko da, eta Patronatuak aukeratutako hamabi kide izango ditu gehienera jota.

Alderdi horiekin guztiekin batera, egoitza soziala aldatuko da, Aurrezki Kutxak Iruñeko Karlos III.aren etorbidean zuen egoitza zaharretik Iruñeko Pio XII.aren etorbideko 2. zenbakira aldatzea erabaki baitzuen 2015ean Fundazioaren Patronatuak.

Era berean, erredakzioan zenbait aldaketa egin dira, aplikagarri den araudira egokitzeko gai teknikoetan nagusiki, baina baita beste batzuk ere, funtsezkoagoak: agindu berri bat txertatzea emakumeen eta gizonen arteko parekotasuna lortzeko, bai Patronatuaren osaeran, bai kargudunen izendapenean; erredakzioan hizkuntza inklusiboa erabiltzea; nahitaez Patronatuko presidenteordea izendatzea; edo geratzen den hartzekoa likidatzeko eta adjudikatzeko prozesua berriro arautzea. Hartzaileak Nafarroako Gobernua eta Iruñeko Udala izango dira, herritarren interes orokorren bermatzaile publiko gorenak diren aldetik.

Azken batean, Estatutuen erreforma honen bidez, Nafarroako Kutxa Fundazioaren helburua da XXI. mendeko Nafarroaren aurrerabide sozial, ekonomiko eta kulturala lortzea, Fundazioak Nafarroara bideratu behar baitu bere ondarea osatzen duten funts, partaidetza eta inbertsioen produktua, eta hori guztia, noski, Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Navarra erakundearen gizarte ekintzaren bokazio historikoa zainduz, eta erakunde garden, independente, kontziente eta arduratsu gisa jarduteko konpromisoari utsiz, gizartea eraldatzen eta lurraldeari lotuta jarraitzeko.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Izaera, izena eta eremua.

1. Nafarroako Kutxa Fundazioa (aurrerantzean, Fundazioa) irabazi-asmorik gabeko fundazio pribatua da, eta bere ondarea, modu iraunkorrean, Estatutu hauetan zehazten diren interes orokorreko helburu instituzionalei lotuta dago.

Nafarroako Kutxa Fundazioa da Nafarroako Kutxa Fundazioak hartu duen izen berria banku fundazio izaera galdu ondoren. Erakunde hori sortu zen Nafarroako Kutxaren eraldaketatik, eta, azken hori, berriz, Nafarroako Aurrezki Kutxak (Nafarroako Foru Diputazioaren 1921eko akordioz sortua) egin zuen Iruñeko Aurrezki Kutxaren (Nafarroako Foru Diputazioaren 1872eko akordioz sortua) absortziotik.

2. Oro har, Fundazioa Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Babesletzaren ikuskaritzapean dago, eta Babeslaritzak ekonomia eta ogasunaren arloan eskumena duen departamentuaren edo erregelamenduz eskumena esleitzen zaion departamentuaren bitartez gauzatuko du.

3. Fundazioak, batez ere, Nafarroako Foru Komunitatean garatuko ditu bere jarduerak.

4. Nafarroako Gobernua eta Iruñeko Udala entitate fundatzailetzat hartzen dira.

5. Estatutu hauek gaztelaniaz eta euskaraz idatzita geratuko dira.

2. artikulua. Helbidea.

1. Fundazioak Iruñean du egoitza soziala, legezko ondorio guztietarako, Pio XII.aren etorbideko 2. zenbakian.

2. Patronatuak egoitza soziala Nafarroako Foru Komunitatearen barruan aldatu ahal izango du, eta, horretarako, estatutu hauek aldatu beharko ditu.

3. artikulua. Iraupena.

Fundazioak iraupen mugagabea du. Hala ere, uneren batean Fundazioaren berezko helburuak betetzat jo badaitezke edo bete ezinezkotzat jotzen badira, Patronatuak fundazioa azkentzea erabaki ahal izango du, Estatutu hauen 51. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

4. artikulua. Araubide juridikoa eta zerga-araubidea.

1. Fundazioak Estatutu hauek, Gobernu Korporatibo Onaren Erregelamenduak eta Kodeak eta Patronatuak bere eskumenen esparruan hartutako Erabakiak ditu arau, bai eta unean-unean aplikagarri zaion araudia ere, batez ere Zenbait Fundazioren Zuzendaritza Organoak arautzen dituen otsailaren 17ko 2/2014 Foru Legea eta Nafarroako Fundazioei buruzko ekainaren 30eko 13/2021 Foru Legea.

Halaber, Fundazioa Gardentasunari, Funtzio Publikoan Sartzeari eta Gobernu Onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen aplikazio-eremu subjektiboaren pean dago, eta Nafarroako fundazioen eta babes-jardueren zerga-araubidea arautzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legeari edo hura ordeztzen duen arauari atxikita.

5. artikulua. Nortasun juridikoa eta gaitasuna.

Fundazioak berezko nortasun juridikoa du, eta gaitasun juridiko osoa du bere helburuak betetzeko, estatutu hauen eta une bakoitzean aplikagarri zaion indarreko legeriaren arabera.

Ondorioz, adierazpen-izaerarekin eta ez mugatze-izaerarekin, mota guztietako ondasunak, higigarriak edo higiezinak eta eskubideak eskuratu, kontserbatu, eduki, xedatu, besterendu eta zergapetu ahal izango ditu, edozein bitartekoren bidez; era guztietako egintzak eta kontratuak egin ahal izango ditu; eta gobernu-bidera edo bide judicialera jo ahal izango du, mota guztietako akzioak eta salbuespenak gauzatzuz epaitegi, auzitegi eta erakunde publiko eta pribatuen aurrean. Hori guztia Babeslaritzak nahitaez eman beharreko baimenei eta Babesletzari egin beharreko komunikazioei kalterik egin gabe.

II. KAPITULUA

HELBURUAK, JARDUERAK ETA PERTSONA ETA ERAKUNDE ONURADUNAK

6. artikulua. Helburuak.

Fundazioaren helburua Nafarroaren aurrerapen sozial, ekonomiko eta kulturean laguntzea da, pertsonen bizi-kalitatea hobetzen lagunduko duten erronka sozialei erantzuteko proiektuak sustatuz, norberarenak nahiz lankidetzakoak, bereziki kolektibo ahulenei lagunduz.

7. artikulua. Jarduerak.

1. Fundazioak Patronatuak une bakoitzean fundazioaren helburuak betetzeko egokitzat edo komenigarritzat jotzen dituen jarduera guztiak egin ahal izango ditu, estatutu hauetan eta aplikatu beharreko legerian ezarritakoaren arabera.

2. Fundazioak lankidetzeta-hitzarmenak sinatu ahal izango ditu bere jarduera orokorrak edo espezifikoak baliabide materialez eta giza baliabideez hornitzeko funtsak ematen dituzten beste pertsona fisiko edo juridiko batzuekin. Era berean, bere funtsak erabili ahal izango ditu bere proiektuak finantzatzeko edo lankidetzan aritzeko, dagozkion eremuetako edozeinetan eta lankidetzeta-akordioak lor ditzakeen edozein erakunderekin.

3. Fundazioak jarduera ekonomikoak egin ahal izango ditu, baldin eta jarduera horien xedea fundazioaren helburuekin lotuta badago edo jarduera horien osagarri badira, zuzenean edo zeharka merkataritza-sozietateen bidez, baldin eta sozietate horietan ez bada sozietatearen zorren erantzukizun pertsonalik, aplikatzekoa den araudiaren arabera. Nolanahi ere, merkataritza-jardueren emaitza garbia Fundazioaren helburuak betetzeko erabili beharko da.

Fundazioak ezin izango du inolako partaidetzarik izan sozietate-zorren erantzukizun pertsonala behar duten merkataritza-sozietateetan. Edozein tituluren bidez sozietateetako partaidetzaren bat jasotzen badu Fundazioak, eta sozietate horietan

sozietate-zorren erantzukizun pertsonala badu, zor horiek eraldatzeko beharrezkoak diren jarduerak egin beharko ditu berehala, bere erantzukizuna mugatuko duen forma juridikoa har dezaten.

4. Proiektu eta jardueren kudeaketa eta gauzatzea Patronatuak onartuko dituen plan estrategikoen eta jarduera-planen arabera egingo da.

5. Fundazioak bere helburuei eta jardueri buruzko informazio nahikoa emango du, pertsona eta erakunde onuradunek, erakunde fundatzaileek eta gainerako interesdunek ezagut ditzaten.

8. artikulua. Pertsona eta erakunde onuradunak.

1. Fundazioaren jarduerak onura ekarri beharko die pertsonen gizatalde orokor eta zehaztugabeei. Nolanahi ere, oro har, Nafarroako gizartea jotzen da Fundazioaren jardueren onuraduntzat.

2. Onuradunen mugaketa beharrezkoa den guztietan, hala nola bekak edo proiektuetarako ekarpen ekonomikoak ematea, Fundazioak arreta berezia emango die fundazioaren helburuen arabera arreta jaso dezaketen herritarren sektoreko kideei, betiere berdintasunaren, inpartzialtasunaren eta diskriminaziorik ezaren irizpide orokorrekin eta merezimendu eta gaitasuneko irizpide bereziekin bat etorriz, alde batera utzi gabe lurralde-aniztasuna, onuradunen premia-egoera pertsonalak, eskaera-agindua eta antzeko beste batzuk ere kontuan hartu ahal izatea. Patronatuak deialdi bakoitzaren betekizun espezifikokoak eta, hala badagokio, hautaketa-organoaren osaera, jarduteko irizpideak, betekizunak eta baloratu beharreko merezimenduak erabaki ahal izango ditu.

3. Inork ezin izango du alegatu, ez banaka ez taldeka, Fundazioaren edo haren Patronatuaren aurrean, eman baino lehen bere onurez gozatzeko eskubiderik, ezta pertsona edo erakunde jakin batzuei horiek esleitzea inposatzerik ere.

III. KAPITULUA

PATRONATUA

LEHENENGO ATALA. ARAU OROKORRAK

9. artikulua. Izaera.

1. Patronatua Fundazioaren gobernu-, administrazio- eta ordezkaritza-organo goren da, eta berari dagokio fundazioaren helburuak betetzeko beharrezkoak diren ahalmen eta eskumen guztiak erabiltzea, estatutu hauetan eta ordenamendu juridikoan xedatutakoaren arabera.

2. Patronatuak kide anitzeko izaerarekin jardungo du, eta kideek estatutu hauetan eta ordenamendu juridikoan ezarritako betebeharrak, printzipio eta arauen arabera beteko dute kargua.

3. Patronatuari dagokio fundazioaren helburuak betetzea eta fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak arduraz administratzea, haien errendimenduari eta erabilgarritasunari eutsiz.

10. artikulua. Patronatuko kide karguaren izaera.

1. Patronatuko kide kargua pertsonalki bete behar da. Hala ere, aurrez izendatutako Patronatuko beste kide batek jardun ahal izango du haren izenean eta haren ordezkari gisa. Ordezkaritza hori egintza zehatzetarako izango da, eta, hala badagokio, ordezkatuak idatziz emandako jarraibideak beteko ditu.

2. Patronatuko kideek doan beteko dituzte beren karguak, eta inola ere ezin izango dute ordainsaririk edo dietarik jaso beren eginkizuna betetzeagatik. Hala ere, karguak bere eginkizuna betetzean eragiten dizkien gastuak aurreratzeko edo itzultzeko eskubidea izango dute, behar bezala justifikatuta, lege ezarritako mugekin.

3. Patronatuko kideek beren ahalmenak erabiliko dituzte modu leial eta independentean, eta, beren ebazpenak edo erabakiak hartzean, ezingo dira behartu Estatutu hauetan edo ordenamendu juridikoan ezarritako baldintza edo betekizunik betetzera.

4. Patronatuko kideek independentziaz, leialtasunez, zintzotasunez, gardentasunez eta erantzukizunez beteko dituzte beren eginkizunak, eta gobernu onaren, beren ekintzen erantzukizunaren eta Estatutu hauetan eta legean aurreikusitako kontu-ematearen arauen mende egongo dira kargua betetzean.

BIGARREN ATALA.- PATRONATUAREN OSAERA ETA IZENDAPENA

11. artikulua. Patronatuaren osaera.

1. Patronatua bederatzi (9) kidek osatuko dute, honela banatuta:

- a) Nafarroako Parlamentuaren osoko bilkurak izendatutako bost (5) kide,
- b) Erakunde fundatzaileek izendatutako lau (4) kide:
 - Nafarroako Gobernuak hautatutako hiru (3) kide.
 - Iruñeko Udalak aukeratutako kide bat (1).

2. Patronatuko kideak hautatu eta izendatzerakoan, estatutu hauetako 22. artikuluan xedatutakoa beteko da, Fundazioko karguak izendatzean genero-berdintasunari buruzkoa.

3. Nafarroako Parlamentuak eta Erakunde Fundatzaileek hautatuko dituzte Patronatuko kideak, estatutu hauetan eskatzen diren betekizun orokorrak eta espezifikoak betetzen direla ziurtatzeko zehazten dituzten arau eta irizpideekin bat etorritik.

12. artikulua. Patronatuko kide izateko baldintza orokorrak.

Patronatuko kideek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Adin nagusikoa izatea eta ezintasun judizialik ez izatea.
- b) Kargu edo eginkizun publikoetan aritzeko edo ondasunak administratzeko ezgaituta ez egotea.

c) Ospe profesionala, ezagutza eta esperientzia aitortua izatea fundazioaren helburuekin lotutako hiru eremuetako batean: soziala, kulturala eta ekonomiko-finantzarioa.

Patronatuko kideek beharrezko ospe profesionala, ezagutza eta esperientzia dutela ulertuko da, erakundearen kudeaketa arduratsu eta zuhurra egiteko gaitasunari buruzko zalantzarik sortzen ez duen jokabide pertsonala eta profesionala erakutsi dutenean.

Estatutu hauetako 16.3 d) artikuluan aipatzen den hautagaiaren profilari buruzko txostenaren bidez egiaztatuko da izendatutako Patronatuko kideen ospe profesionala, ezagutza eta esperientzia.

d) Hurrengo artikuluan arautzen diren debeku eta bateraezintasunen bat ez izatea.

13. artikulua. Debekuak eta bateraezintasunak Patronatuko kide izatearekin.

Ezin izango dira Patronatuko kide izendatu aplikatu beharreko araudian aurreikusitako bateraezintasun- edo debeku-egoeraren batean dauden pertsonak.

14. artikulua. Erakunde fundatzaileek izendatutako Patronatuko kideen izendapena eta egiaztapena.

1. Nafarroako Gobernuak Patronatuko kideen izendapena egiaztatzeko, Nafarroako Gobernuaren erabakiak ziurtatzeko ahalmena duen organoak edo agintaritzak egindako izendapen-ziurtagiria aurkeztu beharko da.

2. Iruñeko Udalak Patronatuko kidea izendatu duela egiaztatzeko, Udaleko Idazkaritzak edo ziurtatzeko ahalmena duen beste agintari baliokide batek egindako izendapen-ziurtagiria aurkeztu beharko da.

15. artikulua. Nafarroako Parlamentuak izendatutako Patronatuko kideak hautatzea.

Nafarroako Parlamentuak izendatutako Patronatuko kideen hautapena Idazkaritzak edo Nafarroako Parlamentuan ziurtagiria lortzeko eskumena duen organoak emandako hautapen ziurtagiriaren bidez frogatuko da.

16. artikulua. Karguaren iraupena, berritzea eta lanpostu hutsak betetzea.

1. Patronatuko kide kargua sei (6) urtekoa izango da.
2. Patronatuko kideak ezin izango dira hurrengo agintaldian berriz hautatu, artikuluko honetako 3. c) puntuan ezarritakoa galarazi gabe.
3. Patronatuko kideak berritzeko edo lanpostu hutsak betetzeko, arau hauek bete beharko dira:
 - a) Erakunde fundatzaileek hautatutako Patronatuko kide berriak izendatzeko: Patronatuak, lehendakari diharduenaren bitartez, Erakunde Fundatzaile bakoitzarengana joko du, 17. artikuluko bigarren paragrafoan aurreikusitako epean dagokion Patronatuko kidea izenda dezaten.
 - b) Nafarroako Parlamentuak hautatutako Patronatuko kide berriak izendatzeko: Patronatuak, lehendakari diharduenaren bitartez, Parlamentuko lehendakaria denari zuzenduko zaio, 17. artikuluko bigarren paragrafoan aurreikusitako epean dagozkion Patronatuko kideak izenda ditzan.
 - c) Lanpostu hutsak betetzeko izendatutako Patronatuko kideek kargua beteko dute, kargua aldi baterako amaitu arte falta den denboran. Epe hori ez da zenbatuko hurrengo agintaldian berrautatzeko ezintasunari buruz aurreikusitakoaren ondorioetarako, baldin eta lanpostu hutsa agintaldiaren erdia igaro ondoren gertatu bada, hau da, hiru (3) urte igaro ondoren.
 - d) Izendapen guztiekin batera, hautagaiaren profila egiaztatzen duen txosten bat aurkeztu beharko da, bai eta interesdunaren adierazpen bat

ere, kargurako arauz ezarritako baldintzak betetzen dituela eta fundazioaren estatutuetan adierazitako bateraezintasun- edo debeku-egoerarik ez duela adierazten duena.

e) Berrautaketak, hala badagokio, izendapenaren izapide eta baldintza berberak izango ditu.

4. Fundazioaren bizitzan uneren batean patronatuko kide guztiak falta badira, pertsona horiek jardunean jarraituko dute, harik eta hutsik dauden postuak estatutu hauetan aurreikusitakoaren arabera betetzen diren arte.

Ezinezkoa bada edo kargua betetzeko bateraezintasun- edo debeku-kasuren batean badago, Fundazioaren Babesletzak Kudeaketa Batzorde bat izendatuko du Patronatuaren eginkizunak bere gain hartzeko, harik eta hutsik dauden postuak estatutu hauetan aurreikusitakoaren arabera betetzen diren arte.

17. artikulua. Patronatuko kide bihurtzea: kargua betetzen hastea.

1. Patronatuko kideak beren eginkizunak betetzen hasiko dira kargua berariaz onartu ondoren, Nafarroako Fundazioei buruzko Foru Legean horretarako aurreikusitako prozeduretako baten arabera; horretarako, gehienez ere hilabeteko epea izango dute, izendatu direnetik zenbatzen hasita.

Nolanahi ere, karguen izendapena eta onarpena Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

2. Patronatuko aurreko kideen agintaldia amaitu aurreko hilabetearen barruan izendatu edo hautatu beharko dira. Horretarako, Patronatuko lehendakariak agintaldiaren amaiera-dataren eta berritzearen egokitasunaren berri emango die, gutxienez bi hilabete lehenago, lehendakariari edo erakunde eskudunen ordezkari gorenari duten pertsonari.

Era berean, kargua hutsik geratuz gero, Patronatuko lehendakariak postu huts horren berri emango dio Patronatuko lehendakariari edo kargua uzten duen Patronatuko kidea ordezteko dagokion erakundearen ordezkari gorenari, Patronatuko kide berri bat hautatu edo izendatzeko.

3. Patronatuko kideak hautatzeko edo izendatzeko ziurtagiriak Babesletzari jakinaraziko zaizkio, eta hark Patronatuko idazkaritzari jakinaraziko dizkio.

18. artikulua. Kargua uztea.

1. Patronatuko kideen izendapena ezeztazina izango da. Aurrekoa gorabehera, honako kasu hauetan utziko dute kargua:

a) Heriotza edo legezko absentzia.

b) Ezgaitasunagatik edo gaitasungabetzeagatik.

c) Patronatuko kide izateko baldintzak galtzeagatik edo estatutu hauetako 13. artikuluan ezarritako debeku- eta bateraezintasun-arrazoietakoa edozein egiteagatik.

d) Agintaldia amaitzeagatik.

e) Patronatuko idazkaritzari idatziz uko egiteagatik; uko egite hori Patronatuak jakinarazpena jasotzen duenetik aurrera izango da eraginkorra.

f) Fundazioari eragindako kalteengatik erantzukizun-akzioa baiesten duen edo kargutik kentzea agintzen duen ebazpen judizial irmoaren bidez.

g) Patronatuak bidezko arrazoiren batengatik hartutako banantze-erabakiaren bidez. Ondorio horietarako, bidezko arrazoi dagoela ulertuko da Patronatuko kideak bere karguari datxezkion betebeharrak betetzen ez dituenean edo bere jarduera publiko edo pribatuarekin Fundazioaren ospeari, izen onari edo jarduerari kalte nabarmena egiten dionean. Bereziki, banantzeko arrazoi zuzena dagoela ulertuko da estatutu hauen 43. artikuluan ezarritako jarduketa-arauak betetzen ez direnean.

2. Aurreko paragrafoko b) eta c) idatz-zatietako kasuetan, kargu-uztea Patronatuko idazkaritzak emandako ziurtagiriaren bidez formalizatuko da, Gobernu Onaren Batzordeak txosten arrazoitua egin ondoren, eta Babesletzari jakinaraziko zaio.

Aurreko paragrafoko a), e) eta g) letren kasuetan, nahikoa izango da Patronatuko idazkaritzaren ziurtagiria.

3. Artikulu honetako 1. paragrafoko d) eta e) idatz-zatietan aipatutako edozein arrazoirengatik kargua uzten duten Patronatuko kideek beren eginkizunak betetzen jarraituko dute, harik eta hutsik dagoen lanpostua estatutu hauetan aurreikusitakoaren arabera betetzen den arte.

3. ATALA. PATRONATUAREN ANTOLAKETA

19. artikulua. Patronatuaren Lehendakaritza.

1. Patronatuko lehendakaria kideen artean aukeratuko da, gehiengo osoz eta isilpeko bozketa bidez.

Patronatuaren berritze partzial bakoitzaren ondorengo hiru hilabeteetan, lehendakariak Patronatuaren esku utzi beharko du bere kargua, berresteko edo, bestela, beste hautapen bat egiteko. Berrespenak hautaketaren baldintza berberak izango ditu.

2. Patronatuko lehendakariak Fundazioaren ordezkaritza instituzional gorena izango du mota guztietako pertsona, agintari eta erakunde publiko edo pribatuen aurrean, eta Patronatuaren eta zuzendaritza nagusiaren arteko elkarrizketa izango da. Era guztietako egintzak eta kontratuak egin ahal izango ditu, bai eta horretarako beharrezkoak diren dokumentuak sinatu ere.

3. Lehendakaritzari, besteak beste, honako ahalmen hauek dagozkie:

a) Lehendakaritza duen organoen bilkuretarako deia egitea, eztabaidagai izango diren gaiak eta horien ordena zehaztea, bilkuren buru izatea, eztabaidak eta eztabaidak zuzentzea eta antolatzea, erabakiak bozkatzea, bozketen emaitza aldarrikatzea eta aktak onestea.

b) Fundazioaren sinadura ofizialaz arduratzea, zuzendaritza nagusiarekin batera, Patronatuak erabaki moduan.

- c) Patronatuaren erabakien egiaztagiriei oniritzia ematea.

- d) Premiazko kasuetan komeni dena xedatzea, Patronatuak ebatzi arte atzeratzea komeni den edozein gairi dagokionez, eta Patronatuak egiten duen lehenengo bileran egindako jardueren berri ematea.

- e) Patronatuaren erabakiak betetzea eta betearaztea.

- f) Fundazioaren ordezkariak gorena izatea kanpoko harremanetan.

- g) Legeek eta estatutu hauek edo Patronatuak eskuordetzen dizkion gainerako ahalmenak erabiltzea.

4. Patronatuko lehendakariak kargua utziko du honako arrazoi hauengatik:

- a) Patronatuak kargua uzteko hartutako erabakiaren bidez, patronatua osatzen duten kideen gehiengo osoaren aldeko botoarekin.

- b) Patronatuko kide izateari uzteagatik.

- c) Patronatuko idazkaritzari idatziz aurkeztutako uko egiteagatik.

20. artikulua. Lehendakariordetza.

1. Patronatuak lehendakariorde bat izendatu ahal izango du bere kideen artetik. Lehendakariorde horri dagokio behin-behineko ordezkapena egitea eta lehendakariaren eskumenak baliatzea, baldin eta lehendakari hori kargua hutsik dagoenean, bera ez badago edo gaixorik badago.

2. Patronatuko lehendakariorde eta lehendakariordetza hutsik edo kanpoan edo gaixorik badaude, Patronatuko Lehendakariordetza ordez, karguan antzintasun handiena duen Patronatuko kidea arituko da, eta antzintasun bera izanez gero, adinez nagusia.

21. artikulua. Idazkaritza.

1. Patronatuak idazkaritza bat izendatuko du. Idazkaritza hori ezin izango da Patronatuko kide izan, eta bere eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren lanbide-prestakuntza, esperientzia eta ezagutzak izan beharko ditu; Fundaziotik kanpoko profesionala izan daiteke.

2. Idazkaritzari honako eginkizun hauek dagozkio:

a) Patronatuaren bileretara eta hark sortutako batzordeetara joatea, hitzarekin baina botorik gabe.

b) Patronatuaren eta hark sortutako batzordeen bileren aktak idaztea eta baimentzea.

c) Patronatuaren erabakiak ziurtatzea, lehendakariaren oniritziarekin.

d) Patronatuaren akta-liburuak eta agiriak zaintzea.

e) Patronatuaren eta haren kideen jarduna legearen, estatutuen, eta, hala badagokio, Fundazioaren etika eta gobernu korporatibo onaren kodeen eta gainerako barne-araudien arabera izan dadin aholkatzea eta zaintzea.

f) Idazkaritzari datxezkion edo agintzen zaizkion beste eginkizun guztiak.

3. Idazkaritzaren aldi baterako ordezkapena, lanpostu hutsa, absentzia, gaixotasuna edo legezko beste arrazoiren bat dagoenean, Patronatuaren erabakiz egingo da.

22. artikulua. Genero-berdintasuna karguak izendatzean.

Patronatua osatuko duten Patronatuko kideak hautatu eta izendatzean, bai eta Patronatuak berak bere kideen artean egiten dituen karguak izendatzean ere, edozein motatako diskriminazioak saihestuko dira, Patronatuaren osaera ahalik eta paritarioena izan dadin saiatuz.

4. ATALA. PATRONATUAREN EGINKIZUNAK

23. artikulua. Patronatuaren eginkizunak.

1. Patronatuak, fundazioaren gobernu-organo gorena den aldetik, fundazioa administratzeko eta ordezkatzeko ahalmenik zabalena izango ditu, legean eta estatutu hauetan ezarritako mugekin. Horretarako, erakundearen eta haren ondasun eta eskubideen defentsa eta iraunkortasuna zainduko ditu, eta beharrezkoak edo komenigarriak diren jarduketak egingo ditu une oro.

2. Era adierazgarrian eta ez mugatzailean, Patronatuaren eskumenak eta ahalmenak izango dira, hala badagokio, bidezko diren baimenak eman ondoren, honako hauek:

a) Fundazioaren helburuak lortzeko jarraibide estrategikoak eta jarduteko helburu orokorrak onartzea.

b) Fundazioaren memoriak, jardura-planak, urteko kontuak eta aurrekontuak onartzea.

c) Lehendakaria, lehendakariordea eta idazkaria izendatzea eta kargutik kentzea.

d) Patronatuko batzordeak edo beste edozein organo eskuordetu sortzea, horien eskumenak eta funtzionamendu-arauak ezartzea, eta Patronatuko kide izango diren kideak izendatzea eta kargutik kentzea.

e) Fundazioaren zuzendaritza nagusia izendatzea eta kargutik kentzea, eta fundazioaren eginkizunak eta ordainsariak finkatzea, estatutu hauen arabera.

f) Fundazioaren zuzendari nagusiaren kudeaketa gainbegiratzea eta kontrolatzea, haren helburuak finkatuz eta urtero jardunaren ebaluazioa eginez.

g) Estatutuen aldaketa interpretatzea eta onartzea, Babeslaritzak nahitaezko txostena egin ondoren, eta estatutu hauetan aurreikusitakoa garatzeko barne-arauak onartzea.

h) Fundazioak kudeatzen dituen zentroyen barne-erregimeneko erregelamenduak onartzea.

i) Irabazi-asmorik gabeko erakundeen jokabide-kodea betetzen dela zaintzea, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak onartutako balore-merkatuaren esparruan aldi baterako inbertsioak egiteko, eta kode horren betetze-mailari buruzko urteko txostena egitea.

j) Egitura organikoa, aldaketa eta zuzendaritza-karguen hautaketa onartzea.

k) Bat-egitea, zatiketa osoa edo partziala, eta fundazioa desegitea dakarren beste edozein integrazio edo akordio onartzea, bai eta fundazioa azkentzea ere.

l) Kontuen kanpo-auditoretzaren mandatua izendatzea, kargutik kentzea edo luzatzea.

m) Fundazioaren izena aldatzea.

3. Era berean, Patronatuari dagokio merkataritza-sozietateetan dituen partaidetzak kudeatzea eta, ildo horretan, Fundazioak, akziodun gisa, gobernu-organoetan eta, bereziki, Batzar Nagusietan dituen eskubideak eta ahalmenak baliatzea. Hala badagokio, dagozkion jarraibideak emango dizkio eskubide horiek baliatuko dituenari, Fundazioaren ordezkari gisa.

24. artikulua. Eskuordetza eta ahalordetzeak.

1. Patronatuak bere ahalmenak eskuordetu ahal izango dizkie kide bati edo batzuei eta zuzendaritza nagusiari, bai eta ahal orokorrak edo bereziak eman ere.

Inola ere ezin izango dira eskuordetzan eman 23. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan aurreikusitako ahalmenak, ezta gehiengo berezia behar duten akordioak, Babeslaritzaren baimena behar duten ahalmenak eta indarrean dagoen legeriak ezarritako beste edozein.

2. Eskuordetza iraunkorrek eta ahalordetzeak, bai eta horien ezeztapenak ere, Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

5. ATALA. PATRONATUAREN FUNTZIONAMENDUA

25. artikulua. Saioak.

1. Patronatuaren bilkurak ohikoak eta ezohikoak izan daitezke.

2. Patronatuak ohiko bilkurak egingo ditu, bere eginkizunak eraginkortasunez betetzeko behar den maiztasunarekin, eta, gutxienez, hiruhileko bakoitzaren barruan, lehendakariak deialdia egin ondoren.

3. Patronatua ohiz kanpo bildu ahal izango da, lehendakariak edo haren ordezkariak beharrezkotzat jotzen badu, baina Patronatuko idazkaritzari idatziz eskatzen badiote ere, eta aztertu beharreko gaiak zehaztasunez adieraziz, Patronatuko kideen heren bat.

Ezohiko bilkura eskatzen bada, Patronatuko lehendakariak gehienez ere 3 egun balioduneko epean deituko du bilkurara, eta bilkura egingo da deialdia egin eta bat (1) - hiru (3) egun balioduneko epean, eskaeran adierazitako gaiak sartuta gai-zerrendan.

4. Patronatua modu unibertsalean ere bildu ahal izango da, baldin eta, Patronatuko kide guztiak bertan daudela, aho batez ezohiko bilkura egitea erabakitzen badute, aho batez ezartzen duten gai-zerrendaren arabera.

26. artikulua. Deialdia eta non egingo den.

1. Patronatuko lehendakariari dagokio bileretarako deia egitea, bai bere ekimenez, bai gutxienez kideen herenak eskatzen duenean.

2. Deialdia posta elektronikoz edo jaso dela jasota uzteko beste edozein bitartekoren bidez egingo da, eta bertan adieraziko da bilera non, zein egunetan eta zein ordutan egingo den, bai eta gai-zerrenda ere, dagokion dokumentazioarekin batera.

Ohiko bilkuretarako deialdia gutxienez bost (5) egun baliodun lehenago egin beharko da. Ezohiko bileretan, gutxienez egun baliodun bat lehenago egindako deialdia baliozkoa izango da, estatutu hauetako 25.4 artikuluan ezarritakoa alde batera utzi gabe.

3. Deialdiaren eta Patronatuko kideei egindako edozein jakinarazpenen ondorioetarako, Patronatuko kideak kargua onartzeko unean Fundazioari ematen dion helbide elektronikora jo beharko da, eta Fundazioari horren inguruko edozein aldaketaren berri eman beharko zaio.

4. Bilkurak sozietatearen egoitzan egingo dira, baina lehendakaritzak zehaztutako beste leku batean ere egin ahal izango dira.

